Aretxabaletako Udala

EUSKARA TEKNIKARI PLAZA
HAUTAKETA PROZESUA

Oposizio-faseko 2. probari buruzko
INFORMAZIO ORRIA

Proba: ariketa praktikoa
Eguna: 2026ko azaroaren 12a
Ordua: 9:30
Lekua: Arkupe kultur etxeko 2. solairua
Proba egiteko gunea irekitzeko ordua: 9:20

Arretaz irakurri jarraibideak. Azterketa egiteko moduari buruzko zalantzarik edo arazorik baduzu, adierazi azterketa-zaintzaileei ariketa hasi aurretik.

JARRAIBIDE OROKORRAK

1. Proba egiten den bitartean, NANa mahai gainean eduki behar da, ikusteko moduan. Azterketak iraun bitartean honakoak bakarrik eduki ditzakezu **mahai gainean**: azterketan emango zaizun materiala, NANa eta boligrafo bat (beltza edo urdina)
2. **Telefono** mugikorra itzali eta gorde. Azterketan zehar telefonoa erabiltzeak hautaketa prozesutik kanporatzea ekarriko du.
3. Proba egiteko gunean **isilik** egon behar da.

ARIKETAREN EGITURA ETA PUNTUAZIOA

1. Azterketak idatziz erantzun beharreko 4 galdera izango ditu, bakoitza bi azpigalderarekin.
2. Galdera bakoitzaren ondoan zehaztuta dago bakoitzaren puntuazioa.
3. Galderei labur erantzun, alferrikako luzamendutan ibili barik. Erantzunen zehaztasuna, ideiak azaltzeko egokitasuna, gaiarekiko lotura eta norberaren ekarpena baloratuko dira.
4. Galderak boligrafo beltzez edo urdinez erantzun behar dira emandako paper zurian, ez galderen orrian.
   Soil-soilik emandako orri zuriak erabili zure erantzunak garatzeko.
5. Zenbaki-ordenari eutsi behar zaio eta letra argia erabili.
6. Erantzun bakoitzari dagokion galdera-zenbakia eta atala argi adierazi.
7. Azterketa egiteko **3 ordu** izango dituzu. Azterketa hasi aurretik adieraziko da probaren iraupen zehatza.
8. Proban **50** puntu lortu ahalko dira gehienez, eta gainditzeko, **25 puntu** lortu beharko dira gutxienez.
9. Erantzunetan, puntuazio partziala lor daiteke, erantzunak funtsezko elementuetan asmatzen badu, nahiz eta bere garapenean osatugabea izan.